

Bideoaren erreferentzia: Bagoaz A2B23i, *Parrandarako prestatzen*

Maila: A2

Helburua: Zerbait egiteko eginbeharrak adieraztea

Funtzioak: Zerbait deskribatzea

Azken jarduera: Helburu bati begira, eginbeharren edo baldintzen zerrenda adieraztea

Adierazpide linguistikoak:

- Aditza + behar: *Gidabaimena ateratzeko, 18 urte izan behar dituzu*
- Lexikoa:
 - *Lagun* hitzaren adierak: adiskidea, pertsona...
 - Afari, parranda, erosketak, txukundu, prestatu..

1- IKUSI AURRETIK

Geroxeago ikusiko duten bideoari begira, lagunekin egiten ditugun otorduez jardungo dugu atal honetan. Taulan ematen zaizkien elementuekin (non eta noiz egin duten, eta ea lanik egin duten prestaketan), talde txikitik arituko dira ikasleak beren esperientziaren berri emanez. Nahi izatera, taula osatu daiteke denen artean, eskaintzen diren aukerak edo zerrendak zabalduz.

Bideoa ikusi aurretik, geroxeago ikusiko dutenaren gainean hipotesiak egiteko galdera bat daukate. Hori ere talde txikitik egin dezakete. Erantzuna bideoa ikusitakoan jakingo dugu.

Erantzuna: b)



2- IKUSI BITARTEAN

Bideoa ondo ulertu duten erreparatzeko tartea. Hasieran bakarka eta gero bikoteka adostu behar dituzte erantzunak. Zuk baloratu zenbat aldiz ikusi behar duten bideoa, osorik edo zatika.


Egia/Gezurreko 5 esaldi dituzte; egoki iritziz gero, esaldia gezurrezkoa denean, galdetu dakieke ikasleei zein den benetakoa. Gogoratu lehenago egindako ariketa ere (bideoari buruzko hipotesiak egitea, alegia) komentatzea.

Erantzunak: Egia: 2-5; Gezurra: 1-3-4

3- IKUSI ONDOREN

  Hasteko, lexikoan jarriko dugu arreta, hain zuzen ere, 'lagun' hitzaren adieretan: pertsona, adiskide eta andregai. Elkarrizketan ageri diren 3 adierei erreparatuko diegu. Zabaldu daiteke hiztegia (*lagun min, mutil-lagun...*), baina guk 'pertsona' adierari eman diogu arreta, hori baita bereziena gaztelaniarekin alderatuta. Horren harira, ariketa bat daukate, elkarrizketan ageri diren 3 *lagun* hitzak zer adierazi nahi duten. Ondoren, 'pertsona' adierarekin zenbait adibide daude, esanahiaz hobeto jabetu daitezten.

Erantzunak: a-3, b-2, c-1

 Ondoren, 'Jarri arreta hizkuntzan', zerbait egiteko egin behar diren zereginetan fokalizatu dugu, azalpen labur bat adibideekin eskainiz. Hizkuntz-forma: **aditza+behar**

⚠ **Oharra:** Hemen ez dugu lantzen egitura horren beste adierarik: asmoak (*Gero erosketak egin behar ditut*), aholkuak (*Sasoian egoteko, kirola egin behar duzu*). Gorako esan bezala, zerbait egiteko zer egin behar izaten den (ekintzak, baldintzak....)

✍ 👤 Jarraian, eta aurreko azalpen gramatikala erabiltze aldera, bideoko elkarrizketarekin lotutako ariketa bat dago. Etxean afari-parranda bat prestatzeko, egin behar diren ekintzen zerrenda osatzeko eskatuko diegu; horietako batzuk idatzita dituzte. Horrek beraiek egin behar dutenari begira, eredu gisa funtziona dezake.

✍ 🎧 Amaitzeko, azken jarduera daukagu. Zenbait egoera edo helburu eskaintzen zaizkie; ikasleek, talde txikitan jarrita, horietako bat aukeratu eta helburu edo eginkizun hori betetzeko zer baldintza edo betebeharrak behar diren idatziko dute papereko laukian zerrenda osatuz.

✂ Bukatzeko, denen aurrean azalduko dituzte osatutako zerrendak. Gai bera aukeratu dutenen artean, osatu edo borobildu daitezke zerrenda horiek.

TRANSKRIPZIOA

JOSU.— Aizu, Amaia, afaria etxean egiten badugu, bakoitzak zerbait ekarri eta merkeago aterako zaigu!

AMAIA.— Bai, onena da afaria etxean egitea. Badakizu zenbat izango garen?

JOSU.— Bueno, ba etxeko bostok, Ander, Juneren bi lagun, Alexen neska-laguna, Antton eta Miren... eta kito! Denok lekua edukitzeko, afaria terrazan egitea da onena.

AMAIA.— Primeran. Gainera, eguraldi bikaina daukagu.

JOSU.— Aizu, eta parranda ere terrazan egiteko aukera dago.

AMAIA.— Ideia bikaina! Musika pixka bat jarriko dugu. Egin al duzu erosketak-zerrenda?

JOSU.— Nik? Ez, zuk egin behar zenuen.

AMAIA.— Nik? Nik beti egiten dut!

JOSU.— Horixe ba!

AMAIA.— Ez, ez dut egin. Josu, zuk egingo zenuela adostu genuen.

JOSU.— Lasai, hementxe daukat!

AMAIA.— Baboa! Eta zer erosi behar dugu?

JOSU.— Guri tokatu zaigu urdaiazpikoa, patea eta txorizoa erosteak. Eta kubatak egiteko, izotz-puskak.

AMAIA.— Orduan, lehendabizi harategi batera joango gara.

JOSU.— Eta... arrautzak, olioak, ogia, kafea eta esnea.

AMAIA.— Besteek ez dute ezer erosi behar, ala?

JOSU.— Bai, lasai, zerrenda egin genuenean, ez zinen hainbeste kexatu; bakoitzak bere zerrendatxoa dauka.

AMAIA.— Ondo da. Orduan, onena lehenbailehen erosketak egitera joatea da, etxea txukundu behar dugu oraindik!

JOSU.— Txukun-txukun dago eta.

AMAIA.— Bai, zera! Bost lagun bizi gara bertan eta azken hilabetean ez dugu erreparasatu.

JOSU.— Orduan, nire siesta...

AMAIA.— Zure siesta... bihar!